

## **Gauzak horrela (ere) izan ziren. ELA 1976-2006**

### **German Kortabarria. Pamiela, 2015**

## **18. kapitulua**

### **ELA eta LAB: lehen urratsak**

1992tik aurrera ELAren aliantza-politikaren ardatza aldatzen joango da. Ordura arte, UGT eta CCOO izan zituen ohiko sozio, eta, esparruen auziak harremanok maiz gaiztotzen bazituen ere, ELAk ez zuen beste lankidetzak aukerarik begiztatzen. Ordezkaritzaren aldetik laugarren sindikatua zen LABekiko harremanak, berriz, enpresa edo sektore jakin batzuetara mugatzen ziren; Konfederazio mailan, LAB ez balego bezala jokatu zuen ELAk urtetan, eta, 1992ko Nazio Batzordearen agirian<sup>1</sup> “beste” sindikatu abertzalearekin zerbait egiteko aukera aipatu zuenean ere, errezeloa zen nagusi ELAren LABenganako zehar-begiradan.

ENAMen estrategia politiko-militarraren mendeko izatea egozten zion ELAk LABi; honekin batera, eguneroko jardunari zegokionean, sindikatu batentzat “ez ohikoak” – hau da, “ez onargarriak” – ziren jokabideak baliatzea, behin baino gehiagotan enpresetan ELAko militanteekin liskarbide izaten zirenak.

LABen ELAri buruzko iritzia ere ez zen ezta: arlo politikoan, EAJk Estatutu eta Foru Hobekuntzaren alde egindako apustua itsu-itsuan babestu izana leporatzen zion; arlo sindikalean, “*horiz tindatutako zerbitzu-sindikalismoa*” baliatu izana 80. hamarkadan itzelezko ordezkariak irabazteko. LABek onartzen zuen, halere, azkenaldian aldaketa zantzuak sumatu zitezkeela ELAren, besteak beste, “*Ezker Abertzalearen borroka proiektu erregionalistaren baitan eragindako higaduraren ondorioz*”<sup>2</sup>.

Bi erakundeen artean jatorri eta jokamolde politiko nahiz sindikalaren aldetik zegoen urruntasuna ikusita, inork gutxik aurreikusiko zuen bizpahiru urtetan ELA eta LAB uztartuko zituen lankidetzak estua.

#### **Sindikatu abertzaleen etorkizuna, kolokan**

1992 urtean sindikalismo abertzalea zalantza beteriko bidegurutzean aurkitzen zen: goranzko joera zuen, egia da, baina kanpoko faktoreek – inboluzio politikoak eta lan-harremanen zentralizazioarako estrategiak, batez ere – mehatxuz beteriko etorkizuna iragartzen zioten.

ELA, berez, sasoiko azaltzen zen: afiliazioa hazten zihoakion; barne antolaketa eta koadroen aldetik ere, berritzen eta egokitzen ari zen; eta ordezkariari zegokionean, EAEko lehen sindikatua zen, CCOO eta UGTekiko alde handiarekin. Nagusitasun hori

<sup>1</sup> 1992-03-06: “Euskadi, aurrerapen eta askatasun bidetik”.

<sup>2</sup> ELA-STV y la unidad sindical (LAB, 1996ko iraila)

antzu gerta zitekeen, ordea, sindikatu espainolen euskal adarrek beren konfederazioen ildo zentralizatzailearekin bat egiten zuten unean; beraz, ELAren nagusitasun nabarmen hura hauskorra eta behin-behinekoa baino ez zen EAEn ezarria zegoen “hiruren arteko” sindikalismoan. Horregatik, LAB tartean sartu ezker osatuko zen “lauren arteko” sindikalismoak aukera berriak eskaini ziezazkiokeen ELAri, estrategia sindikalaren giltza kendu egingo baitzien CCOO eta UGTi, beti ere bi sindikatu abertzaleek ados jartzen ziren heinean.

LABek ere goranzko bolada hartua zuen: hautes-alditik hautes-aldira bere emaitzak hobeak ziren<sup>3</sup> eta, laugarren sindikatu izan arren, CCOO eta UGTengandik oso gertu zegoen jada. LAB kexu zen, alabaina, lan eta gizarte harremanen egituran ez zitziolako sindikatu normalaren kontsideraziorik aitortzen, eta bere presentzia soziala ere ordezkartiaz zegokiokeena baino askoz txikiagoa zelako. Horregatik, LABen zuzendaritza berriak – 1992ko martxoan koordinatzaile nagusi izendatua zen Rafa Diez Usabiaga – LABen eragina emendatzeko eta sindikatuaren proiektzioa lausotzen zuen bakartzea behin betiko gainditzeko xedea hartu zuen.

Esan daiteke, bada, 1992an ELA zein LAB estrategia zaharrak berraztertu eta berriak saiatzera behartuta aurkitzen zirela, aurrera egin nahi bazuten: premia hori izan zen, batez ere, bi zuzendaritzak, errezelo eta diferentziak alboratu, eta elkarlanaren aukera esploratzera akuilatu zituena.

## **M27: hiruko berria**

1992ko Maiatzaren 27ko greba orokorraren ingurukoak izan ziren ELAk LABekin konfederazio mailan izan zituen lehen lankidetzaren harremanak. Apirilaren 7an Espainiako Gobernuak langabeen babes murriztu zuen Dekretu-legez, Europarekiko konbergentzia-planak agindutako defizitaren txikiapenaren izenean. Alde bateko erabaki hark itsusi uzten zituen inondik ere Gobernuarekin elkarrizketa soziala finkatzeko ahaleginean ari ziren UGT eta CCOO; hauek, hala ere, elkarrizketa berreskuratzeko aukera ez zapuztearren, Gobernuari erantzun neurtua ematen saiatu ziren eta, greba orokorraren ordean, Espainia osorako “gutxienez” lau orduko greba iragarri zuten Maiatzaren 28rako<sup>4</sup>.

<sup>3</sup> LABek hauteskundetan lortutako ordezkartaren bilakaera: 1980an, % 4,53; 1982an, % 5,73; 1986an, %10,66; eta 1990en %12,60.

<sup>4</sup> UGT eta CCOO bere kritika Carlos Solchaga Ekonomia Ministroarengan xedatzen saiatu ziren. Aldi berean, Lan Ministerioarekin greba legearen erreformari buruzko harremanak jarraitzen zuten (El País, 30-04-1992: “Los sindicatos UGT y CC OO y los responsables del Ministerio de Trabajo seguirán negociando la futura ley de huelga pese a las convocatorias de paros generales”).

ELAk ez zuen deialdia bere hartan onartu: edukiaren aldetik, txepela iruditzen zitzaiolako; prozeduraren aldetik, ELAekin aurretik adostu gabe egin zelako<sup>5</sup>. Euskal sindikatuaren erantzuna Maiatzaren lehenengoko mitinean eman zuen Jose Elorrietak, egun osorako greba iragarrita: *“greba bateratua izan dadin saiatuko gara, baina guk, egin, egingo dugu”*. Rafa Diez Usabiagak ere Maiatzaren leheneko ekitaldia baliatu zuen LABek egun osoko greba orokorra deitzeko asmoa zuela adierazteko.

ELAk beste hiru konfederazioekin izan zituen bilerak deialdia zehazteko. Azkenean, ELA, CCOO eta LABek egun osoko greba deitu zuten Maiatzaren 27rako, hau da, Espainia mailan deitutako mobilizazio egunaren bezperarako; UGTk deialditik kanpo geratzea erabaki zuen, gero EAEn M27ko grebarekin bat egin beste erremediorik izango ez zuen arren. Grebaren arrazoiak zehazterakoan ere, ezaugarri propioak ezarri zituzten hiru sindikatuek: langabezia babesa murrizten zuen Dekretuaren indargabetzeaz gainera, Euskadirentzat berrindustrializazio politika, enplegua lehenetsiko zuen Europarekiko konbergentzia soziala, eta greba eskubidea<sup>6</sup> aldarrikatu zituzten. Nafarroan CCOOk ez zion eutsi hiru sindikatuen akordioari eta, UGTn eskutik, Madrilgo deialdiarekin bat egin zuen.

M27ko grebaren atarian hiru idazkari nagusiek Bilbon egin zuten agerraldiak – non Rafa Diezek hartu zuen, Elorrieta eta Bengoaren alboan, Josu Fradek bete ohi zuen lekua – LABen “ukiezintasunaren” tabua hausten zuen nolabait. Hala ere, ez ziren egun batetik bestera gaudituko sindikatuen arteko mesfidantza eta hoztasuna: M27rako sindikatu bakoitzak bere propaganda atera zuen, eta greba eguneko manifestazioa ere talde ongi berezituetan egin zuten batzuek eta besteek: ELA eta CCOO, talde batean, eta LAB, bestean, bien artean sindikatu txikiagoen multzoa tartekatzen zelarik; LABen taldean ez ziren falta izan KAS alternatibaren, gose eta egarri greban zeuden Salto del Negro-ko presoek, eta amnistiaren aldeko aldarriak. Nafarroa izan zen ELA eta LABeko militanteak multzo berean manifestatu ziren lurralde bakarra.

27ko grebak arrakasta izan zuen EAEn eta emaitza nahiko ona Nafarroan, 28ko deialdia Estatuan nahiz Nafarroan besterik gabe pasatu zen bitartean. ELAri zegokionean, M27ak EAEn zuen lidergoa nabarmendu eta lan harremanen esparru propioaren aldarria sendotu zuen. LABi, berriz, bere inguruan ezarritako isolamendua hausteko eta, bide batez, Ezker Abertzale osoaren inguruan ezarritakoa ere urratzen hasteko balio izan zion, besteak beste; LABek une hura nola bizi zuen erakusten digu sindikatuko ordezkari batek greba egunean Egin egunkariari esandakoak: *“Hemen*

<sup>5</sup> Grebarako deialdia aurkeztu zuten agerraldian iragarri zuten UGT eta CCOOk hurrengo egunetan egotekoak zirela beste sindikatuekin, grebara atxiki zitezten: *“En los próximos días mantendrán encuentros con los sindicatos ELA-STV, CIGA(sic), USO y CGT para que se unan a las protestas anunciadas, a las que ya se han sumado la Unión de Actores y diversos colectivos de jóvenes, mujeres y asociaciones de vecinos”* (El País 29/04/1992).

<sup>6</sup> Sasoi hartan Espainiako Gobernuak greba arautzeko lege berria aztertzen ari zen, itxura guztien arabera indarrean zegoena baino baldintza estuagoak jarriko zituen grebarako.

*amaitu da Ajuria-Eneako Ituna sindikatuen esparruan ezartzeko saialdia; gaur ezarri den indar harreman berriaren ondoren beste sindikatuekin parez pare hitz egiteko moduan gaude*<sup>7</sup>.

ELA eta LABen arteko erlazioari dagokionez, beldur eszenikoa gainditzeko lehen urratsa emana zegoen; zer esanik ez dago CCOOn parte-hartzeak leundu egin ziola urrats hura ELAri eta, seguruenik, baita LABi ere. Bestalde, mobilizazioaren kudeaketak aukera eman zion arestian ia harremanik ez zuten bi erakundetako arduradunen arteko tratuari; harreman horren sendotzetik etorriko zen geroago mamituko zen kolaborazioa.

ELAk hautematen zuen LABekiko elkarlanak izan zezakeen proiektio estrategikoa<sup>8</sup>, baina artean ez zuen garbi zein izango zen aurrerantzean LABen jokabidea: *“irizpide sindikalen arabera aritzen bada – zioen ELAko Jose Ignacio Sueskunek, grebaren balorazioa egiterakoan – errazagoa izango da aurrerantzean ere LABekin akordiotara iritsi ahal izatea*<sup>9</sup>; bistan da, Nafarroako arduradun izaki, biko elkarlanaz ari zela Sueskun.

Dena dela ere, ELAren jarrera ofizialak batasun sindikalaren aldeko diskurtso tradizionalari eutsi zion, ordura arteko hirukoari LAB gehituta, *“lauren arteko elkarlana hiruren artekoa baino eraginkorragoa baita*<sup>10</sup>. Baina gero eta argiago ari zen zehazten ELA elkarlanerako gutxieneko baldintzak: euskal negozioaz eta, oro har, lan harremanen esparruaren errespetua, eta Nafarroan ezarritako ELAren baztertzearen amaiera. Baldintzok UGTi aukera gutxi uzten zioten; Euskadiko CCOOk, aldiz, askoz jarrera malguagoa erakusten zuen, M27ko grebaren inguruan bezala, Eraikuntzako hitzarmenaren negoziazioan ere, Madrilgo aginduei muzin egin, eta bertako lurralde hitzarmenen negoziazioan parte hartu baitzuen.

### **Berrindustrializazioaren aldeko hiruko kanpaina**

Euskal industriaren krisiari erantzun beharrak bilduko zituen berriro M-27ko hiru erakundeak, lankidetzarako baino lehiarako aproposagoa zen hauteskunde sindikalen tarterik beroena – irailtik abendurakoa – gainditu bezain laster. Horrela, 1993ko otsailaren 15ean hedabideen aurrean sinatu eta aurkeztu zuten ELA, CCOO eta LABeko arduradun nagusiek enpleguaren egoerari buruzko azterketa eta proposamenak jasotzen zituen txotena. Dokumentu hura ez zen egiten erraza izan, batzuen eta

<sup>7</sup> (Egin, 1992-05-28, 1 eta 3 or.)

<sup>8</sup> Ez nator bat Letamendiaren liburuan jasotzen denarekin (145 or.), hots, hasieran ELArentzat elkarlana koiunturakoa zela.

<sup>9</sup> Landeia 1992, ekaina, 13 or.)

<sup>10</sup> Jose Elorrieta, Egin, 1992-05-24).

besteen ikusmoldeak, eta esamoldeak ere, desberdinak zirelako, baina egoeraren larritasunak akordiora premiatsu zituen. Elorrieta, Bengoa eta Diezen agerraldi berriak M-27rakoak baino proiektio luzeagoa zuen, inolaz ere, hiru sindikatuen mobilizazio kanpaina eta ekimen instituzionalerako oinarriak jartzen baitzituen. Akordiotik kanpo geratu zen UGTk haren kontra egin zuen: CCOOn “amore ematea” salatu zuen, batez ere, eskumen sozialen gaian eta negoziazio esparruarenean abertzaleen tesiekin bat egin zuela eta.

Sindikatu abertzaleentzat kanpaina hura elkarri neurria hartzeko test moduko bat ere izan zen. *“LABekin lankidetzak puntuak bilatu behar dira (...) ekimen zehatzetan probatu elkarlanaren sendotasuna, eta funtzionatzen duen ala ez egiaztatu”*<sup>11</sup>, zioen Jose Elorrietak kanpaina abiatu baino aste batzuk lehenago. Rafa Diezek elkarlanak ireki zitzakeen aukerak azpimarratzen zituen: *“ELAk izandako jokaera berriarekin aukera zenbait ireki egiten dira euskal sindikalismotik Euskal Herriko eraikuntzarako ekarpen eta protagonismo zuzena eduki ahal izateko. ... Burututako ituna zerbait desberdinerako lehen urratsa izan da. Etorkizunak esango digu beraren igarpena eta garrantzia. Geu apustu horren aldekoak gara. Emaitzak ikustear daude, baina bidea gutxienez jarrita gelditu da”*<sup>12</sup>.

Kanpaina amaitu orduko egin zen ELAren VIII Kongresuak (1993ko ekainaren 25-26) sindikatuen arteko harremanari zegokionean, hiruren arteko lankidetzaren alde egin zuen: Euskadiko CCOOen jarrera malguagoak elkarlanerako aukera ematen zituela onartu zen bezala, ezinezko ikusi zen UGTekin ezer egitea, sindikatu honek adierazten zuen *“euskal lan harremanen esparruaren erabateko ukazioa”* ikusita. LABi zegokionean, berriz, *“zailtasun objektiboak”* aipatuta ere, ELAk bere ahalegina agindu zuen *“leialtasun eta malgutasun handienarekin lan sindikal bateratuaren aukera zabalagotzeko”*<sup>13</sup>.

Enpleguaren aldeko kanpainak aurrera egin ahala, ELA eta LABen arduradunen arteko harremana areagotzen eta konfiantza indartzen joan ziren, elkarren ezagutzak aurreiritzien lekua hartzen joan zen heinean.

### **Arazoen gainera, Indar metaketaren aukera**

LABekiko elkarlanak ETAREN aurkako jarrera are gehiago nabarmentzera eramane zuen ELA, haren ekintzen kariatara elkarlanagatik zuzentzen zitzaizkion kritikei erantzun

<sup>11</sup> Egin, 93-1-17(Patxi Lopez Abasoloren aipamena: “1993: ELA, LAB eta CCOO sindikatuen ekintza bateratua”, Uztaro, 46 zenb.) ( Elorrieta: la consolidación de Lab es un hecho: “hay que buscar puntos de colaboración, ... ir probando la consistencia de posibles unidades de acción concreta, viendo si funciona o no funciona”.: “1993: ELA, LAN eta CCOO sindikatuen ekintza bateratua”, Uztaro, 46 zenb.)

<sup>12</sup> Egunkaria, 93-2-28.

<sup>13</sup> VIII Kongresuko Iharduera plana.

eta, batez ere, sindikatuaren barruan ekintzok sortarazten zuten egonezina baretze aldera<sup>14</sup>. LABek ez zituen gogo onez hartzen bere sozioaren adierazpenok eta aurpegira botatzen zion ELAri Ertzaintzaren gehiegikeriak ez zituela salatzen eta, borroka armatua gaitzesterakoan, *“euskal gatazkaren errealitatea sinplifikatu”* eta *“diskurtso antzua”* egiten zuela<sup>15</sup>.

ELAk zeharo okertzat jotzen zuen LABek ETAren ekintzen aurrean erakusten zuen adikortasuna<sup>16</sup>. Baina ez zuen uste kontraesan horrek elkarlanaren aukera bazterrarazi behar zionik, Ezker Abertzalea isolatzea agintzen zuten ahotsek exijitzen zioten bezala: kanpoko presioez ez kezkatzeko eskatu zien Elorrietak sindikatuko koadroei, *“ez baitugu ahaztu behar langileen interesak eta lan harremanen euskal esparruaren aldeko estrategiak premiakoa dutela indar metaketa”*<sup>17</sup>. ELAk argi zeukan berari zegokiola, ez beste inori, estrategia erabakitzea eta, behar izanez gero, sortzen zitzaizkion kontraesanak kudeatzea. Norbaitek harrokeriatzat har zezakeena, militanteek ELAren erabateko independentzia eta erantzukizunean zuten fede osoa baizik ez zen.

### **ELA, “bere historiako unerik onenetarikoan”**

ELAk bazuen, egia esan, harro egoteko motiborik, organizazio bezala *“bere historiako unerik onenetarikoan”*<sup>18</sup> bizi zuen hartan. *“Sindikatu hurbila”* goiburuarekin 1993ko

<sup>14</sup> 1993ko azaroan Joseba Goikoetxea, Ertzaintzako sarjentu nagusia eta ELAko kidea, erail zuenetik, Ertzaintzaren aurkako jazarpena gogortzen ari zen ETA. 1994ko abuztuan bi ertzainek, biak ELAko kideak, eraso larria jasan zuten Errenterian. Bestalde, azaroan, Ertzaintzak Bizkaia komandoarekin izandako enfrontamenduan etakide bat hila gertatu ondoren – ertzain bat ere larri zauritua suertatu zen –, gertatutakoak Ertzaintzaren eta bere “arduradun politikoek” aurkako erantzuna izango zuela iragarri zuen KASEk. ELAk, beste behin, babes osoa azaldu zien ertzainei, *“langile eta sindikatuko kide zirelako eta gure autogobernuko erakunde bat osatzen zutelako”*, eta bere lana zuhurtziaz betetzeko eskatu zien (Azaroaren 23ko agiria, Abenduko Sindikalgintzan jasoa). Egun batzuk geroago, abenduaren 3an, manifestazio jendetsua egin zen Bilbon, LABk eta HBk deituta, *“Ertzaintza ez da herriarena”* pankartaren atzetik: *“zipaioak hormara”* izan omen gehien errepikatu ziren leloetariko bat.

<sup>15</sup> LABek (Egunkaria 93-9-2), Julio Iglesias Zamora, Donostiako Ikusi enpresako ingeniariaren bahiketaren inguruan ELAk egindako kritikei erantzunez. Iglesias 1993ko uztailaren 5ean bahitu zuen ETAk; 116 egunen ondoren askatu zuten.

<sup>16</sup> Jose Elorrietaren iritziz, Iglesias Zamoraren bahiketaren harira LABek egindako adierazpenek, *“nolabait zuritu”* egiten zuten zeharo arbuigarriak ziran ekintzak, *“ez baita onargarria, ez politikoki ez ekonomikoki, enpresa-gizon bat bahituta edukitzea”* (1993ko Urriaren Nazio Kontseiluaren aurrean egindako mintzaldia, Manu Robles-Arangiz fundazioak argitaratutako txostenetik). Azaroan argitaratu zuen komunikatuan ETA berak aurpegiratu zion ELAri Ikusiren zuzendaritzarekin erakutsitako elkartasuna: *“Elorrietaren hitzak (...) ez dira erraz ulertzen. Duela hilabete bartzuk Euskal Herriak jasaten duen krisiaren arrazoiak eta erantzuleak aski ongi kokatu bazituen ere, oraingoan entresarienganako elkartasun eta laguntza eskeiniz aritu da. Hone luke Elorrieta jaunak langabezia dauden langileekiko elkartasuna eta laguntza eskatzea, hobe luke langileen defentsarako indarrak erabiltzea, hobe luke lan bila emigratzera kondenatzen ari diren gazteek kezkatzea”* (Egin, 1993-11-05, 10; aipamena Lopez Abasolo, Patxi, 1993: ELA, LAB eta CCOO sindikatuen ekintza bateratua, Uztaro, 46tik jasoa).

<sup>17</sup> 1993ko Urriaren Nazio Kontseiluaren aurrean egindako mintzaldia.

<sup>18</sup> Jose Elorrieta, ELAren VIII Kongresuaren aitzinean egindako elkarrizketa (Landeia, 14, 1993 ekaina),.

ekainean egin zuen VIII. Kongresuan sendotasun eta gardentasun erakustaldia eman zuen: afiliatu kopuruaren zehaztasuna (83.196 lagun) kazetariei egiaztatzeko aukera eman zien eta txosten ekonomikoa ere publiko egin zuen<sup>19</sup>. Aurrera begira, bi helburu nagusi jarri zizkion ELAk bere buruari: antolakuntzaren alorrean, barne egituren garapena eta eraginkortasuna ELAk osatzen zuen *“proiektu integralaren”*<sup>20</sup> baitan; negoziazio kolektiboarenean, berriz, kanpotik zetorkion zentralizazioaren mehatxua ahaztu gabe ere, barne jardueran txertatutako ohikeria eta inertzia astindu nahi izan zituen Kongresuak, lan hitzarmenen negoziazioa era sistematikoagoan, antolatuagoan eta zehatzagoan egin ahal izateko.

*“ELA nazio prozesuan”* ponentzia politikoak, nazio eraikuntzan eragile izateko borondatea eta engaiamendua berretsi zituen. Gernikako Estatutuaren narriadura salatzen zuen ponentziak: *“Estatutuaren oinarrian zegoen ituna hautsi dute, eta Estatutuaren zentzua eta zerumuga berrikusi eta degradatzen ari dira”*; hala eta guztiz ere, ez zuen Estatutuaren aukera baztertzen, bera baitzen *“autogobernu maila goienagokora pasatu ahal izateko prozesu estrategiko egingarri bakarra, beti ere okerrak zuzendu, blokeoak gainditu eta indar harreman berria, guztiz posiblea dena, egiten badugu”*<sup>21</sup>.

### **Hirukotik bikora**

Sindikatuaren arteko harremanetara itzulita, 1992ko maiatzaren 28ko lau orduko lanuzteak ez zituen eten, nonbait, UGT eta CCOOek Gobernuarekin eta CEOEekin itun sozialaren inguruan zerabiltzaten tratuak. Euskal sindikatuentzat axola handiko gaiak ziren Madrilen, beren bizkar eta, pentsa zitekeenez, kaltean ere, eztabaidatzen ari zirenak: lan erreforma, negoziazio kolektiboa, hauteskunde sindikalen arautegia, greba legea... ELArentzat, 1979an gertatutakoa ari zen errepikatzen hamalau urte geroago<sup>22</sup>, *“orain UGT eta CEOEk, kide dutela orduan menderatu beharreko arerioa zen CCOO”*<sup>23</sup>.

Euskadiko CCOOk, bere aldetik, enpleguaren aldeko kanpainarako ELA eta LABekin hartutako konpromisoak txukun bete zituen, EAera mugatuta beti ere, baina gero era deserosoago zekusan bere burua Espainiako konfederazioarekin kontraesan gaindiezinak sortzen zizkieten akordio eta konpainian: Madrildik konfederazioak itun soziala, lan harremanen zentralizazioa eta UGTekiko lankidetzak jarriak zituen

<sup>19</sup> Urte bete geroago kaleratuko zen Ruiz Olabuenaga soziologoak zuzendutako inkestaren emaitzen arabera, EAEn sindikatuaren bateko kide zirenen ia erdia ELAn zegoen.

<sup>20</sup> “Integraltasuna” izan zen, Letamendiarentzat, VIII Kongresuaren gako-hitza ( 172 or.).

<sup>21</sup> “ELA, nazio prozesuan”, IV, 5.

<sup>22</sup> Ikusi *Langileen Estatutua* kapitulua.

<sup>23</sup> Landeia 18, 1993ko abendua, editoriala.

estrategiaren oinarrian; Euskadiko adarrak, aldiz, Ardanzen itun proposamenari ezezkua eman behar izan zion, lan harremanen esparru propioaren aldarrikapena sinatua zuen, eta UGTk arbuizatu zuen aliantzaren parte zen. Bateriaezina bateratzeko ahaleginean, Euskadiko CCOOk erdibidekoa omen zen formula proposatu zuen lan hitzarmenatarako: negoziazio artikulatua. Proposamenak sindikatu abertzaleen ezezko borobila jaso zuen, Madrilen nagusitasuna berretsi baino ez baitzuen egiten, azken finean<sup>24</sup>. Lan harremanen esparruaren auziak halaberrez aldendu zuen Euskadiko CCOO sindikatu abertzaleengandik.

Bitartean, nahasmena zen nagusi Itun sozialaren inguruko harremanetan: Felipe Gonzalez-en gobernuak eskubideen murrizketa erabakita zeukan, baina erreforma, ahal zela, UGT eta CCOOren onarpenarekin egin nahi zuen: ordainetan bere estatusa hobetuko luketen arau aldaketak eskaintzen zizkien, hauteskunde sindikalean eta negoziazio kolektiboaren gaitan, besteak beste; sindikatuek, itun soziala nahi izan arren, ezin zieten proposatutako murrizketei baiezkorik eman; patronala, bere aldetik, inolako konpromisorik hartu gabe, nahasmen hartatik zer aterako zegoen<sup>25</sup>.

Gobernuari pazientzia agortu bide zitzaion eta, 1994ko aurrekontuen legea erabiliz, hainbat neurri indarrean jartzeko alde-bateko erabakia hartu zuen: langabezia-babesaren murrizketa, pentsioak inflazioaren azpitik berrikustea, langile, pentsiodun eta langabetuen gaineko presio fiskala emendatzea, eta langile publikoen soldatak izoztea. Neurri onuragarriaren kanpaina antolatuz LABekin jarri zen harremanetan ELA. Ordura arteko hirugarren kidea, CCOO, kanpaina hartan ez izanaren arrazoia ELAren idazkari nagusiak azaldu zuen: *“Euskadiko CCOOk Madrilen aurrean amore ematea erabaki du, eta muzin egin dio hiruko lankidetzari”*<sup>26</sup>. Letamendiak idatzi duenez, 1992-1993 urteak ekintza batasun ereditutik bloke sindikalen eredurako trantsizio urteak izan ziren<sup>27</sup>.

LABekin adostutako kanpainak hiru fase izango zituen: aurrena, informazioa banatu eta gaiaren garrantziaren kontzientzia hedatzeko; gero, herri eta eskualdeetako mobilizazioak egingo ziren; azkenik, manifestazio nazional batekin emango zitzaion bukaera kanpainari.

<sup>24</sup> Espainiako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean CCOOk zuen ordezkari batek negoziazio kolektiboaren “artikulazioaz” emandako azalpen metaforikoa jasotzen da 1993ko abenduko Landeiarren editorialean: *“Txorrota goian itxi eta behera ez da urik iristen”*. UGT eta CEOEren ordezkariak guztiz bat omen zetozen azalpenarekin.

<sup>25</sup> Ikusi Landeia 16, 1993ko Urria, “La ceremonia del pacto social” editoriala.

<sup>26</sup> Jose Elorrietarekin elkarrizketa, Landeia 18, 1993 abendua.

<sup>27</sup> Letamendia, 127: “los años 1992-1993 fueron los años de transición de un modelo de unidad de acción a la estrategia de bloques sindicales”.



Biko ekimen hura iragarri orduko “fronte abertzalea” osatu izana egotzi zieten ELA eta LABi. Ez zen hori ELAren xedea, argitu zuen Elorrietak Landeian egindako elkarrizketan<sup>28</sup>, baina ezin zitzaion Gobernuari benetako erantzunik eman Gobernu berarekin azpi-jokoan ari zirenekin batera; sindikalismo espainiarra krisi sakonean murgilduta zegoen: ideologiaren aldetik, iparra galdua; finantza-egoeraren aldetik, estatuaren laguntzen menpe; horrek zeharo baldintzatzen zuen UGT eta CCOOn gobernuari erantzuteko ahalmena. ELA eta LABek, aldiz, erreformaren aurkako jarrera zintzoa eta morrontzarik gabea zuten; ezinbesteko baldintza, Elorrietaren ustez, ganorazko erantzuna taxutu ahal izateko.

Bigarren arrazoi bat ere ematen zuen ELAren idazkari nagusiak lankidetzari hartarako: Espainiako indarrek ez zuten onartzen euskal esparruak erakusten zuen errealitate sindikala, eta euskal gehiengoaren aurka ari ziren erabiltzen legalitatea. Erasoei erantzun eta beren eskubideen alde egin beharrak ere premiatzen zituen, bada, bi sindikatu abertzaleak lankidetzari jarraipena ematera: aipatu elkarrizketaren lerro-buruko esaldiak zioen bezala, *“euskal langileok geure burua errespetarazi behar dugu”*.

### **Urtarrilaren 27ko greba**

UGT eta CCOOk, Gobernu sozialistaren destainak behartuta, 1994ko urtarrilaren 27rako lan erreformaren aurkako greba orokorra deitzea erabaki zutenean<sup>29</sup>, bere mobilizazio kanpainan txertatu zuten deialdia ELA eta LABek, eta Gobernuaren neurri antisozialen aurkako aldarrikapenari erantsi zizkioten euskal erakundeen berrindustrializazio politikaren eta euskal lan harremanen esparruaren aldarrikapenak. ELA saiatu zen Euskadiko UGT eta CCOO berriro ere lankidetzara erakartzen, beti ere soilik Urtarrilaren 27rako baina akordio zabalagoa eskatzen zielarik: sindikatuen arteko elkarlanerako behin betiko oinarriak finkatuko zituen akordioa. Eusebio Alberdi, ELAren Batzorde exekutiboko kideak ohartarazi zuen bezala, *“lankidetzari ez da kleenex bat; ez dugu ametitzen erabili eta botatzeko lankidetzarik, eta ez dugu grebarako ahalgina geure gain hartuko, biharamunean UGT eta CCOOk grebaren arrakasta euskal sindikalismoaren aurka erabili dezaten”*<sup>30</sup>.

Greba arrakastatsua izan zen Euskal Herrian, Luesma Lan sailburua eta enparauek arrakasta piketeek eragindako “bortxari” egozten saiatu baziren ere. Arratsaldean Bilbon egin zen manifestazioak – ELA eta LAB, alde batetik, UGT eta CCOO, bestetik – argi erakutsi zuen sindikatuen artean eratzen ari zen bloke banaketa berria.

<sup>28</sup> Jose Elorrietarekin elkarrizketa, Landeia 18, 1993 abendua.

<sup>29</sup> Dirudienez, Nicolas Redondo – UGTk aseguru eta etxebizitza negozioen porrota estaltzeko gobernuaren premia zuen arren – greba deitzearen aldekoagoa zen Antonio Gutierrez, CCOOko idazkari nagusia baino. Azkenean lehenengoak behartu omen zuen bigarrena greba orokorrera. *(Joxek esana)*

<sup>30</sup> Landeia 19, 1994 urtarrila.

Nolanahi, Euskadiko CCOO biko lankidetzatik kanpo geratu bazen ere, ez ziren horregatik erabat eten LAB<sup>31</sup> eta ELAren harremanak: ELAri dagokionean, akordioa egin zuen CCOOkin hauteskunde sindikalen jarraipen prozeduraren gaian – LABek ere onartu zuena – eta negoziazio kolektiboaren eta heziketa iraunkorraren gaietan ere hitz egiten segitzen zuten. Euskadiko UGTk, aldiz, zeharo etenda zituen ELAren harremanak.

Esan bezala, ELAko militante askori malda gora egiten zitzaion LABekoekin batera aritu beharra<sup>32</sup>. Zailtasuna areagotu egin zen CCOOren aldentzearekin, elkarlana bere gordintasunean, inolako zurigarritik gabe, azaldu zenean. Deserosotasun honek ELAren zuzendaritza lankidetzaren aldeko pedagogia egitera premiatu zuen – euskal eragileen eta esparruaren aurkako erasoei aurre egin ahal izateko – eta, aldi berean, ELA LABekin zituen diferentzia politikoak – oroz gain, borroka armatuarekikoak – azpimarratzera: ELA eta LABek *“desberdintasun handia dugu estrategia zein praxi sindikalean – nabarmentzen zuen Eusebio Alberdik Landeian<sup>33</sup> – baina ikusi dugu hainbat helbururekin bat egiten dugula, eta prest gaude horien alde elkarrekin aritzeko”*; *“ETAri kritika erabatekoenak ELA egin dizkio”* – jarraitzen zuen – baina ezin dugu abertzaleon arteko hurbilpen ahalegin oro ETAren *“biharamunerako”* utzi.

### **Otsailaren 19ko manifestazioa: Euskal langileok geure buruaren jabe**

ELA eta LABek elkarrekin hasitako bidean mugarriztat har daiteke 1994ko Otsailaren 19rako deitu zuten lan harremanen euskal esparruaren aldeko manifestazioa. Manifestazio hark bi sindikatuak egiten ari ziren kanpainari amaiera eman zion, baina, aldi berean, aurrera begirako ildo eta borondatea erakutsi zituen.

Autogobernuaren krisia inon nabarmentzekotan, lan eta gizarte gaietan nabarmentzen zen: instituzio eta eragile espainolak euskal instituzioen eta eragileen lan eta gizarte arloko ahalmenak ukatzeko edo murrizteko eginahaletan ari ziren, euskal erakundeen konplizitatea, edota axolagabekeria, lagun zutela. Otsailaren 19an, ELA eta LABek eskumen eta eskubide haien ikurra altxatu zuten, haien alde borrokatzeko borondatea erakutsi eta, hilabete batzuk lehenago egindako parioa berretsiz, borroka hura elkarrekin burutzeko erabakimena azaldu zuten.

<sup>31</sup> LABek CCOOkin zuen harremana ELArenkin zuena baino zaharragoa zen, Jose Elorrietak aipatzen duen bezala: *“Garai hartan (1993) LABen eta CCOOren arteko harremana handiagoa zen, gure eta LABen artekoa baino, batera harremanik ez baikenuen”* (Esan eta egin, Imanol Murua, 65 or.).

<sup>32</sup> Bere lantegian LABekoekin sarritan mokoka aritutako ELAko militante zaildu batek bere arduradunari esandakoak – *“diziplinaz onartuko dut LABekin batera joatea, baina, bada ezpada, ez diet inoiz bizkarrik emango”* – hainbat tokitan zegoen mesfidantza erakusten du; pentsa liteke LABeko militanteen artean ere izango zirela antzeko sentipenak.

<sup>33</sup> Landeia 19, 1994 urtarrila.

Manifestaziorako deitzen zuen agirian, bi erakundeen artean gai batzuei buruz ikuspegi diferenteak zeudela onartuta ere, ELA eta LABek *“esfortzu komuna”* beharrezko ikusten zuten *“egoerarekin ados ez gaudenok ausart eta irmo erantzun dezagun”*. Lan harremanen esparrua osatzeko beharrezko jotzen zituen eskumenak azaltzerakoan, hiru eskaera zehazten zituen agiriak: euskal erakundeentzako ahalmen legegilea lan eta gizarte-babes gaietan; lanbide heziketa, enplegu eta gizarte segurantzaren gaien transferentzia; eta negoziazio kolektiborako eskumen osoa.

Aldarrikapenok lan munduarekin zerikusia zuten arren, ELA eta LABek ez zuten mugatu manifestaziorako deia lan mundura; *“Euskadik bere etorkizuna erabakitzeke eskubidearen alde borrokatzen duten erakundeei”* ere zuzentzen zitzairen bi sindikatuen agiria; ELA eta LABek, beraz, bere burua abertzaletasunaren esparruan kokatzen zuen orori luzatzen zion manifestaziorako gonbita. Manifestazioak *“herri hau murgilduta dagoen desmobilizazio, blokeo eta apatiatik ateratzen lagundu nahi du”* – zioen Jose Antonio Cestona, ELAko idazkari nagusiaren albokoak, deialdiaren xedea azaltzerakoan –; are gehiago, *“lehen urratsa izan behar luke herri hau demokrazia, autogobernu eta justiziaren arabera egituratzeko”*<sup>34</sup>.

Esparru abertzaleko alde banatan koka zitezkeen bi erakundeen ekimena izanak ezohiko dimentsioa eman zion deialdiari; marko instituzionalaren alde eta kontra zeuden indarren arteko inkomunikazioa nagusi zenean, sindikatuak, alderdiek ez bezala, *“hitz egiteko eta elkarrekin aritzeko”* gauza izan ziren<sup>35</sup> eta, aitzindaritzara horretatik, beste eragileei ere agerraldi bateratu hartarako deialdia luzatu zieten.

Sindikatuaren artean, EILAS eta ESK deialdiari atxiki zitzaizkion. Alderdi abertzaleen artean, HB, EA eta EUE izan ziren manifestazioan<sup>36</sup>; EAJ, aldiz, manifestazioaren helburuekin bat egiten zuela ziurtatu zuen arren, ez zen bertan izan, deitzaileetako bat ETAK zuzentzen zuen KASeko kidea zela argudiatuta; Ardanza lehendakariaren itun-saioari emandako ezezkoak EAJrengan utzitako erresumina igarri zion baten batek<sup>37</sup> ezezko hari.

<sup>34</sup> Landeia 20, 1994ko Otsaila.

<sup>35</sup> Egin, 1994-02-20, editoriala.

<sup>36</sup> ELAren Nazio Batzordeak Legebiltzarrean ordezkariak zituzten lau alderdi abertzaleekin bilerak egin zitezela erabaki zuen, manifestazioaren testuingurua eta helburuak azaltzeko, eta atxikimendua eskatzeko (Sindikalgintza, 439, 1994ko Otsaila).

<sup>37</sup> El Mundo, 1994-02-19, editoriala.

Manifestazioa handia eta – deitzaileen lasaitasunerako<sup>38</sup> – inolako istilurik gabea izan zen: ELA eta LABeko kideekin batera, beste herritar askok egin zuten Bilboko Jesusen Bihotzaren enparantzatik Udaletxerako bidea, ikurrina eta bi sindikatuen banderen artean, multzo bereziturik gabeko<sup>39</sup> samalda luzean, *“Euskal langileok geure buruaren jabe /por el marco vasco de relaciones laborales”* zioen pankartaren atzetik; manifestari gehienek paparrean zeramatzaten ELA edo LABen pegatinek jartzen zuten bereizpen ezaugarri bakarra. *“Langileok geurea defenda dezagun”* eta *“independentzia”* izan ziren gehien errepikatu ziren oihuak. Gran Vía osorik bete zuten<sup>40</sup> manifestazioaren burua Udaletxera iritsi zenetik, *“lehenengoek berrogei bat minutu itxaron beharko zuten (...) trikitixa eta bertso giroan”*<sup>41</sup> azken manifestariak hurbildu arte.

### ***“Egun historikoa”***

Errezeloak errezelo, ekitaldi *“pozgarria”* izan zen bertara bildutakoentzat, amaierako hitzaldian ELAren Idazkari nagusiak adierazi zuen bezala, *“bagenuelako gogoia elkarrekin izateko eta errebindikatzeko”*. *“Egun historikotzat”* hartu zuten bi idazkari nagusiek Otsailaren 19koa. Manifestazioaren *“nazio dimentsioa”* azpimarratu zuen Jose Elorrietak bere mintzaldian: *“euskaldun askok, espektro abertzalearen barruan jarrera kontrajarriak izan arren, parte hartu ahal izan dugu elkarrekin, eskutik, nazio baieztapen eta aldarrikapen ekimen batean”*<sup>42</sup>; *“izan da guztiok batu gaituen zer bait: autogobernua, herrigintza edo naziogintza bultzatzeko borondatea, naziogintzak bizi duen egoera larriak eragindako kezka, eta naziogintzan langileok zer esana eta zer egina dugunaren ziurtasuna; (...) gaur eman dugun pauso hau lehen pausoa besterik ez dadila izan”*<sup>43</sup>.

<sup>38</sup> ELA zein LABeko arduradunak jakitun ziren Otsailaren 19ko manifestazioaren arrakastak indartu egin zezakeela bi zuzendaritzen elkarlanaren aldeko parioa, eta ondo atera zedin – batez ere bi sindikatuetakoa oinarrien arteko harremana txukuna eta arazorik gabea izan zedin – saiatu ziren. Borondate horren adierazle zen O19rako kartela ere, non bi sindikatuetakoa militante ezagunak elkarrekin nahastuta agertzen baitziren manifestaziora deitzen.

<sup>39</sup> ELAren Batzorde exekutiboan buelta bat baino gehiago eman zitzaion manifestazioan ELA eta LABeko kideak elkarrekin ala bi multzotan joan behar ote zuten gaiari; azkenean batera joan zitezela erabaki zen, horrela LABekoak eta bere inguruak *“kontrolatuago”* egongo zirela iritzita; multzoen arteko jende kopuruaren konparazioa saihestu nahiak ere lagunduko zuen, behar bada, erabaki hartara. Edonola ere, ELAk manifestazioa ondo lotu nahi zuen, beldur handia baitzuen antolatzaileen kontrolpetik kanpo sor zitezkeen gorabeherei. Azkenean, bekaizkeria eta beldur eszenikoak gaindituta, elkartasun giroa nagusitu zen Bilboko kaleetan.

<sup>40</sup> El Correo taldeko egunkariak zehurrak izan ziren manifestarien kopurua aipatzerakoan (*“varios miles”*, Egin eta El Mundok *“decenas de miles”* aipatzen zituzten bitartean), baina datu esanguratsu bat eman zuten: *“la manifestación ocupó en su totalidad la Gran Vía bilbaína”*.

<sup>41</sup> Egunkaria, 1994-02-20. Auzo-lotsa emateko modukoa da, bestalde, El Correo taldeko egunkariak manifestazioan bizi izan zen giroaz eman zuten azalpena: *“la manifestación concluyó frente al Ayuntamiento de Bilbao en medio de un ambiente folklórico. Mientras esperaban a los últimos manifestantes, los bertsoariak entonaban animadas canciones locales que movían al baile a los presentes (sic)”*.

<sup>42</sup> Martin Aurrekoetxea...

Rafa Diezek ere ekitaldiaren nazio dimentsioa nabarmendu zuen. LABentzat, sindikatu abertzaleek hartutako ekimenari eta protagonismoari esker, Estatutuak abertzaleak zatitu zituenetik ezagutzen ez zen dinamika ari zen sortzen, lan harremanen euskal esparruaren aldarrikapena eraikuntza nazionalaren perspektiban kokatuz.

Otsailaren 19ko manifestazioak ezerezetik sortu berria zen lankidetzaren mamitzen ari zela erakutsi zuen. Egia da bi sindikatuen ikuspegiak ez zirela erabat berdinak, ezta batzen zituen lan harremanen esparruari zegokionean ere: ELArentzat lehentasuna zuten Estatutuaren eduki sozialaren konplimenduak eta euskal eragileentzako negoziazio kolektiborako<sup>44</sup> eskubidearen bermatzeak; LABen diskurtsoan, aldiz, subiranotasunerako estrategiaren osagarria zen, batik bat, gaion aldarrikapena, orduantxe baino ez baitzen ari, ozta-ozta, arlo instituzionalean lehen urratsak ematen<sup>45</sup>, eta, negoziazio kolektiboan ere, ez baitzuen ELAren eskarmentu eta ardurarik<sup>46</sup>.

Baina elkarlanak behartutako bi erakundeen arteko harreman sarria ez zen alferrik izan, eta –Jose Antonio Cestona, ELAren idazkari nagusiaren albokoak aitortzen zuen bezala – *“elkarrizketak, garai honetan izandako eztabaidak, elkar hobeto ezagutu izanak, gai batzuei buruz posizio komunak landu behar izanak, elkarrekiko leialtasunez jokatu denaren kontzientziak e.a. bi erakundeak hobeto kokatzen ditu aurrera begirako lankidetzarako”*<sup>47</sup>. Elkarlanaren egokiera barneratzen zihoan, beraz, bi erakundeetan.

### **Isolamendutik elkarlanerantz**

Gizartean eta politikaren munduan ere hedatzen ari zen elkarrizketaren aldeko giroa, eta ahultzen, neurri berean, Ajuria-Eneako Itunaren izenean ezarritako ENAMaren isolamendurako kontsigna. Apirilaren 12an *“distentsio eta elkarrizketa”* goiburuarekin manifestazioa antolatu zuen Elkarri, *“elkarrizketa eta akordioaren aldeko gizarte*

<sup>43</sup> Sindikalgintza 440, 1994ko martxoa.

<sup>44</sup> Sasoi hartan Langileen Estatutuaren erreforma eztabaidatzen ari zen Madrilgo gorteetan, eta ELA eskura zituen hari instituzional guztiak mugitzen ari zen erreformak euskal eragileei negoziazio kolektiborako eskubidea bermatu ziezaien. Ikusi ... kapitulua: 84 artikulua aldaketa.

<sup>45</sup> LABek denbora gutxi zeraman LHKko kide gisa. GEK, berriz, bertan behera utzita zegoen, eta Luesma Sailburuak LABi lekuri eman gabe jarri nahi zuen berriro indarrean. LABen presentzia izan zen, hain zuzen ere, Elorrietak Luesmari GEK berria onartzeko jarri zion kondizioetako bat: 1994 ekainaren 30an onartu zen GEKaren arautegia aldatzen zuen legea, zeinari esker LABek GEKan sartu ahal izan zuen.

<sup>46</sup> *“Manifestaldiaren helburuetan %100ean datoz bat (ELA eta LAB). Beste gauza bat da bi erakundeek helburu bati edo besteari ematen dioten lehentasuna. Esate baterako, ELAk negoziaketa kolektiboari funtsezko papera ematea, bere kultura sindikalaren osagai delako, LABek agian elementu politikoak (...) aurretik jartzen dituelarik.”* (German Kortabarriarekin elkarrizketa, Sindikalgintza 439, 1994ko otsaila).

<sup>47</sup> Sindikalgintza, 1994ko iraila.

*mugimenduak*<sup>48</sup>; manifestazio jendetsua izan zen, eta anitza, PP eta UPN-koak ez beste alderdietako jendea bildu baitzuen. Elkarrik elkarrizketa eta konponbidearen alde jendartean zabaldu zuen iritzia asko lagunduko zion ELAri LABekin zeraman elkarlanaren aurkako arbuioen eragina leuntzeko.

Ajuria-Eneako Itunaren partaide ziren indar politiko abertzaleen artean gero eta ozenagoak ziren haren berrikuspena eskatzen zuten ahotsak, Itunak zituen helburuak –Estatutuaren konplimendu osoa<sup>49</sup> eta, honen bidez, bakea lortzea – hura sinatu aurretik bezain urruti ikusten baitziren.

EAJren baitan, Joseba Egibar, Juan Mari Ollora<sup>50</sup> eta Gorka Agirre burukideek ordezkatzeko zuten sektoreak, Ajuria-Eneako Itunari uko egin gabe ere, alderdi batzuk egindako haren erabilera eta *“irakurketa frentista”*<sup>51</sup> zuzendu beharra ikusten zuten: euskal gatazka politikoa izaki – Ajuria-eneako Itunak onartzen zuten lege – soilik alde batekoa ez zen irtenbide politikoa behar zuten, eta hori lortzeko HB eta ETA berarekin ere hitz egin beharra zegoen, bakea lortu eta ezker abertzalea bere baitan hartuko zuten kontsentsu berri bat eraiki ahal izateko; 1990ean Eusko Legebiltzarrak autodeterminazio eskubidearen inguruan onartutako ebazpena baliagarria gerta zitekeen kontsentsu berri horren oinarri bezala. Ajuria-Eneako Itunaren jardunbidearekin oraindik kritikago azaltzen zen EA; bi urte zeramatzan alderdi honek Itunaren bileretara joan ere egin gabe.

Ezker Abertzalea, bere aldetik, isolamendutik ateratzeko premia larrian zegoen. Rafa Diez, LABeko koordinatzaile nagusiak egindako adierazpenen arabera<sup>52</sup>, KAS alternatiba birformulatzeko garaia zen: Ezker Abertzaleak *“dinamika egozentriko eta ideologizatuak”* gainditu behar zituen, eta gizartera irekitako beste fase bati ekin, zeinetan Ezker Abertzalea gauza izango zen nazio-proiektu eraldatzaile baten aldeko indarrak bere inguruan bildu eta alternatiba eraginkorra osatzeko. Urte bete geroago, 1995ko udaberrian<sup>53</sup>, ETAK KAS Alternatibaren eguneratzea zen Alternatiba

<sup>48</sup> Elkarrik deitutako lehen manifestazioa izan zen. Elkarri 1992ko abenduan eratu zen, *“elkarrizketa eta akordioaren alde gizarteraren gehiengoak gordean duen iritzia azalarazi eta Euskal Herriaren baketze eta normaltzerako bidean erabakigarri izango den aukera sozial bihurtzeko”*. 1995ko martxoan lehen Bake Konferentzia antolatu zuen, non PP, PSOE eta UPN ezik, beste alderdiek parte hartu zuten.

<sup>49</sup> Gasteizko Legebiltzarrak Estatutua betetzeko falta ziren 54 eskumenen zerrenda (*Zubia txostena* deitu zena) aho batez onartua zuen 1993; 1994an garrantzia gutxiagoko bederatzi gai eskualdatu ziren, baina garrantzia handiagoenekoak Madrilan esku segitzen zuten.

<sup>50</sup> Juan Mari Ollora burukide arabarraren izenaz ezagutua izan zen sektore honen proposamena (*“Vía Ollora”* edo *“Ollora Ildoa”*), bera nabarmendu baitzen proposamenaren garapenean eta azalpen publikoan.

<sup>51</sup> El País, 1994-12-10.

<sup>52</sup> Egin, 1994-4-4, 6. or.

<sup>53</sup> Apirilaren 26an kaleratu zen Alternatiba Demokratikoaren formulazioa jasotzen zuen agiria.

Demokratikoa kaleratuko zuenean ere, erakunde armatuak Estatu espainiarrarekin negoziatu beharrekoa zehaztu ondoren – Euskal Herriaren ezagutza, azken finean –, *“euskal hiritarroi soilik dagozkigun gaiak erabakitzeko”* prozesu demokratikoa zabaltzera deitzen zituen *“sindikatu, elkarte, giza mugimendu, alderdi, maila guztietako instituzio, eta azken finean gizarte osoa”*<sup>54</sup>. ETAk, beraz, eragile sozial eta politikoei onartzen zien Euskal Herria nola antolatu behar zen erabakitzeko eskubide osoa; are gehiago, langintza horretara gonbidatu eta animatzen zituen.

### **ELAren hipotesi baikorra**

ELAk ezin garbiago zuen, ordea, ezin zela lan sozial eta politikoaren inguruko abertzaleen arteko elkarlanik sendotu ETA eta ETAk egiten zuena kontuan hartu gabe, erakunde armatuaren esku-hartzeak muga estuak ezartzen baitzizkion elkarlanari. Hala eta guztiz ere, erreferente komunak eta topagune zibilak bilatzen saiatuko zen ELA: Elorrietaren hitzetan, *“errekontziliazioa, batez ere abertzaleen artekoa, herrigintza aurrera eramateko ezinbestekoa da”*<sup>55</sup>.

Esan bezala, bere nagusitasun sindikala eraginkorra izan zedin LABen premia zuen ELAK, nahiz eta onartu hura *“gure hutsegiteak baliatuko dituen lehiakidea”*<sup>56</sup> zela, eta haren KASekiko dependentzia eragozpena zela lan komunean sakontzeko.

Gatazka armatuaren irtenbideari begira, ELAk espero zuen, bide zibilak baliatu ahala, LAB eta, oro har, Ezker Abertzalea, konturatzen joango zirela *“logika militarrekiko menpekotasuna freno bihurtzen dela”*<sup>57</sup>, eta elkarlanaren garapenak berak jarriko zuela auzitan, azken batean, estrategia armatuaren egokitasuna. Ikusmolde horretatik, borroka armatuaren amaieraren hipotesia itxaropenez begitatzten zuen ELAK, eta lankidetzaren arrakastak borroka armatuaren desegokitasunari buruzko hausnarketa

---

<sup>54</sup> *“Euskal hiritarren artean eztabaidatu eta hitzartu beharrekoa: euskal hiritarroi soilik dagozkigun gaiak erabakitzeko zabaldu beharreko prozesu demokratikoan, sindikatu, elkarte, giza mugimendu, alderdi, maila guztietako instituzio, eta azken finean gizarte osoak hartu behar du parte, horretarako aukerak, eztabaida eta erabaki guneak zehaztuz. Prozesu horretan zehar gutxienezko gai hauek zehaztu beharko lirateke: autodeterminazio eskubidearen garapena (formulazioa, metodologia, aukerak, epeak...); lurralde batasunaren formulazioa eta eraikitze prozesua; Euskal Herri osoaren arteko harremanak; hitzartuko den antolaketa instituzional berriaren ahalmenak, inolako aurre-mugarik gabe; Euskal Herria euskalduntzeko plangintza; eredu eta plangintza sozioekonomikoa; Euskal Herriaren desmilitarizazioa (Armada zeregina – desagerpena barne –; polizia indarren osaketa eta izaera...); irakaskuntza eskubideak; askatasun demokratikoak...”* (Egin, 1995-04-26).

<sup>55</sup> Jose Elorrietarekin elkarrizketa (Sindikalgintza 447, 1994ko abendua).

<sup>56</sup> 1994ko abenduaren 19an Jose Elorrietan Nazio Kontseiluan aurkeztutako txostena (Sindikalgintza, 448, 1995 urtarrila).

<sup>57</sup> Jose Elorrietarekin elkarrizketa (Sindikalgintza 447, 1994ko abendua).

hauspotu zezakeen bezala, *“borroka armatuaren amaierak lankidetzarako askoz egoera hobea ekarriko lukeela”*<sup>58</sup> uste zuen.

Baikorregia, askorentzat inozoa ere izan zitekeen ELAren hipotesia – bere logika oso bestelako logikak gidatzen zuen mugimenduari aplikatzen baitzion – , baina mugimendu abertzalea murgildua zegoen histasuna baino askoz erakargarriagoa zen, inolaz ere, eta ELA prest zegoen hipotesi hura bete zedin bere esku zegoena egiteko.

---

<sup>58</sup> 1994ko abenduaren 19an Jose Elorrietan Nazio Kontseiluan aurkeztutako txostena (Sindikalgintza, 448, 1995 urtarrila).